

ATAUN / Juan Kruz Igerabideren hitzaldia liburuaren eguna ospatzeko

ATAUN. DV. Liburuaren Nazioarteko eguna iragan igandez, apirilaren 23 an ospatu izan den arren, gurean gaur asteartez ospatuko da, Juan Kruz Igerabide, Adunako idazlearen hitzaldia eskeiniko delarik arratsaldeko 15:00etan, Udal Liburutegian.

Bertara, ikasleak gain, gainontzeko herritarrak ere gonbidatuta daude. Bide batez esan, Udal Liburutegia, urte guztian zehar, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 5:00etatik 7:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 12:00etara zabalik dela, herritarrek bertako liburuen eskaintza eta batez ere azken nobedadeak bezeroak irakurri ditzan.

IX. Ikerketa Beka

Ataun Udalak, martxan jarri berri du IX. Ataun Ikerketa Bekarako deialdia Ataungo herriaren historia ezagutu edo bere iturri historikoak berreskuratzen laguntzeko. 3.000 euroko dirulaguntza izendatu du lan sarituarentzako. Deiali honetan parte hartzeko interesa duen talde naiz norbanakoek, bere asmoen berri eta lanaren lagin bat (15 orrialde gehienez), maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu beharko du udalera, eta lana bere osotasunean (50 orrialde gutxienez) amaituta abenduaren 15erako izan beharko du. Xehetasun gehiago jakin nahi izatera, zuzendu udal bulegora.